

Inazio Azueta Obieta
Amorebieta-Etxano, Bizkaia

Aurkibidea

Biografia

Bernagoitia auzoko Mekolakoa. Gerra sasoiari, frontean egon zeneko kontuak kontatzen ditu. 1985eko uztailan egin zitzaion elkarrizketa hau HABEko "Alfabetatzerako Langaia. Bizkaieratik Baturantz" liburuaren prestaketarako.

Zintak

AMO-004

- **Proiektua:** Alfabetatzerako Langaia. Bizkaieratik Baturantz
- **Elkarrizketatzailea(k):** Esturo, Idoia
- **Data:** 1985-07-01
- **Iraupena:** 8 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Emalea:** Aita Villasante Euskaltegia, Gernika-Lumoko

Pasarteak

1. Frontean, alde batetik bestera

- **Erref:** AMO-004/001
- **Iraupena:** 0:04:07. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:04:07
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Aristimuño batailoiko kide izan zen eta berarekin zegoen Jose Bikandi aipatzen du. Elosun hasita, Ubidean, Oviedoko "Toma de Oviedo", Bilbon eta Gorbeian egon zirenekoa kontatzen du. Asturiasen txarto pasatu zuten gosea zela-eta. Beranduago preso hartu eta nazionalekin joan behar izan zuen. Bruneteko batailara eraman zuten eta handik atzera Santanderrera joan zen. Picos de European gaixotu ostean, Mirandara etorri zen eta handik Teruelgo bataila ezagunera joatea egokitu zitzaion artilleriatik. Handik Gasteizera eta berriro Mirandara. Alde batetik bestera ibili ostean, azkenean Segovian lizentziatu zen.

Transkripzioa

«Batallon Aristimuño», Jose Bikandi tte bijjok laguník andijjenak ixen giñien gerra gustijjen. Juen giñien egundo lelengo «Elosu»re, Elosun batalla aundi bat euki giñun ta gero andik erretirei giñien «Ubidea»ra eta gero Ubideatik eruen giñusen ba. ..., «Toma da Oviedo», Oviedoko kalien, Jose apurtxu bat atzeratxuau ibili san, ni, an Oviedon eon giñien, da ba, an be baja andijjek euki giñusen, guk, «Eusko Indarra», «Meabe», «Larrañaga» da UGT... «Quinto de la UGT», onek danok ibili giñien arkalas, da an gero ba, apurtu giñuesenien atzera baja andijjek euki giñusen eta gero ba bakixu... Andik etorri giñien barriro, atras, Bilbora. Gero Bilbotik artu giñusen, Gorbeijjara, da Gorbeijjan gausela, ba sartu sien «nacionalak» ...Asturiasen, emen bestietan Elosun da orretan ondo, Asturiasetan: txarto; jaten be, ba esebes, ba esba, urrek etorten sien astuekas baserritarrak, aixei erosten geuntzesan urrek da jan, da eseguen da, aixekin pasetan gaiñun egune ba politto, ba ser..., tirorik eseguen, tirorik oten etzanien ba ederto. Da gero ba asi sienien emendik Donostiatik eurrerasken, eurrerasken, eurrerasken ba, juen giñien berantza da gero or artu giñuesenien ba jaulan, ba gero eurekas juenbier. ... (Da gero emengue esatie gurusu beste beste alderdikue?)... Emendik eruen giñusan, an juen giñien «Brunete»ra, eta gero Bruneten ixen giñun batalla aundi bat ya esestidu sanetik orduko andijjenetaikue da ba, baja andijjek euki giñusen, andijjek eta andijjek, da gero ba, angue akabeu giñunien, ba etorri giñie barriro ba serera, Santanderko frentera, da Santanderko frentetik Asturiaseraño juenintzen ni. Gero Asturiasen eridu, eridu es, gixotu einintzen en «Los Picos Bajos», «Picos de Europa», andik geixotu, tan andik etorri nintzen ospittelera, ba Torrelavegara, da Torrelavegan osatu nintzenien, gero mostien amabost eguneko konbalesentzije, dajuen giñien gero Burgosera, da Burgosen eingiñusen ilen bete ba an ba txutxerijjak eitten, treneko errekuak utzittu, da andik ortik emendik. Da gero bialdu giñusen andik, serera. «antiarijjuetara», Mirandara, da gero Mirandan, ba, ongiñien e sortzijenbat illebeta edo sera, olakonbat ingo giñusen Mirandan. Da gero ixen san, bakixu... ori... Teruelgo batalla nausijje, da gero selan faltasien artilleruek, ba juen giñien artillerijjas, serera, ba, Teruelera, da Teruelen egingo giñusen, ba, batallie

akabeuarte, da batallie akabeute gausela apurtu jgakusan baterijjak, dei aundijjek eitten geñusen, onako metro bateko edurren edo geijjau, da lei andijjekas, ba... esploteu eiaben kañoio batek. Da bestiek apurtu abasan. Da gero etorri giñien Bittorijjara eta gero barrero Bittorijjatik bialdu giñusen ostera be anterijjuetara, ba Mirandara, oseake, Mirandan eingiñuen amaika illebeta. Gero amaika illebetetik gero, ori Ebroko desastrie ixen sanien ya altzeuabie san barrero onek antearijjuetakuok ta zelan frentie urrinddujen ba altzeu giñusen barrero kuartelera, da gero kuartelien egon giñien ba or, iru-lau illebeta edo ba, guardijje gora guardijje bera, guardijje gora guardijje bera, ortxe Bittorijjan egon giñien eta gero, ba, askenengo au Ebro da ori elimineu sanien, Kataluñako frentie akabeu sanien, da asi sanien Valentziarako joten, ba askenengo finala asi sanien, urten giñun barrero frentera, baya gero barrero frentera urten giñunien, ba, esebes, ya selan artuabien Barcelona, Cataluña, Lerida dana artuabien. Gero joabien Valenciara, da Valenciatik ba... artuabien, da Madrillen ba geratu san ba, barruen, esabien, da Madrillen ba geratu san ba, barruen, esabien erresitentzizijarik eiñ. Gero guk artu barrero baterijjak etajuen giñien Toledotik. Baia Toledotik Ciudadreal, bueno, Toledo dana, da gero Ciudadrealgo zati bat, sartu ingo sien bestaldetik da gero ba,... alan juen giñien, da gero ba antxe, akabeu san geriori, da gerrie akabeusanien, ba, batien leku batera bestien bestera, ba an egoten giñen, askenien ba... lissentzizijeu giñien zerien: Segovian.

2. Unerik txarrenak Oviedon eta Bruneten

- **Erref:** AMO-004/002
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:04:07. **Bukatu:** 00:06:07
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Fronteko unerik txarrenak Oviedokoa eta Brunetekoia izan zirela dio. Orduan, infanterian zeuden; Teruelen, ostera, artillerian. Bertan bizitakoak kontatzen ditu.</p>

Transkripzioa

Momenturik estuena neuretzako neuretzako, lelengo lelengo Oviedokue. Oviedon kalera sartu giñien gu, ametralladoratan egon giñien gu, konpañia bat san. Konpañia Aristimuño nombre «Amaya» euken orrek, lelengo konpañia san ori, da gujuen da juen ein giñien, oseake, «Naranko» dau oixe <<Oiz>> egotieletxe mendi andibaten, «Eskanplero» dau olantxi bestien, da Oviedo dau... estaitt iños egonda basausie, onakoxe trokarro, trokarro baten dau Oviedo, da klaro arek, Narankotik gu juen giñen aurrera da aurrera da aurrera da asi jgakusenien andik kañooska da guk esiñ eutzi ixen geuntzen, eselanbes, erre ein giñusen, kanposantu sar baten sartu giñien batzuk, kuadrilla andi batzuk, da baya andik ametralladora bakixu disparetan danielen asko, ke asko botaten deu, da andik keiyetatik lokalixeu eiñeskusen gu nun gausen, estosu, aitzen, da geu! Geugara! Asi sien, da gero klaro, sartu san koluna gallega batetik da arrapeuskuen atzien, baiya neuretzako, esan duana, estuen estuenak ixen dienak: Oviedo da Brunete. Orduen infanterijjan egon giñen gero, Teruelen ya artillerijjas egon giñien, artillerijjan, badakixu ba, artillerijje ba bakixu ba, apurtxu bat atzeratxuau egoten da, da defentza geitxuau ba, baina Brunete askena, Brunete san

askena, beruaz, emengo euskaldunek itto giñien, bueno itto giñien es, itto sien, esin resitidu, bakixu, amengo jentie freskotxuaue, da gero or eurek euki abiesan «Brigadas Internacionales» esateutziena, «Lister» da «Canpesino» euki abiesan, or egon sien gure eurretik joten, «Batallones de Choque» esaten jgakien, «Brigadas de Choque» esaten jgakien da, orrek, bala danak apurtu sien, emendik, eurek gogor egon sien, gogor bi, ba eurek, batallie jo eiabien, oseake gure abien arek Brunete ,artu eskero Madrilgo pasue sarratzotzien ba, serari, ba, nacionalari, Madrilgo pasue sarratzotzien, da an ixen san batalla negargarrije, baia Meabe ta Larrañaga neuk uste, neure lagun batek esaten deu, orrek Barselonatik urtetabien orrek brigadok, da ortxe apurtu siela danak, serien ba, Bruneten. Neuretzako ixen dienic estuen estuenak orrixek: Oviedo da Brunete.

3. Frontean jateko gutxi: gosea

- **Erref:** AMO-004/003
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:06:07. **Bukatu:** 00:08:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Frontean zeudela, jateko gutxi zuten eta ura be eskas.

Transkripzioa

Jatekue, beittixu jatekue, guk e ..., eskenken, bakixu, nacionalak, edo... emendik Euskaditik leलगotan jateko asko egoten san, baina gero bakixu, an au frontierie ta onek artutzuesenien, au selan dan txikijje, ba askenerako frentien desente emotoskuen, Asturiasen es e. . ., Asturiasen txarto, txarto, txarto... be txarto, da geu be txarto ikusten giñuriesan se pentzetabien arek guk Oviedo derrigor artu biule, demanerake eurek an eurek bixi gustijjen egon sien, esin eser ein ixebien, da gu juen giñien, gu juen giñien illtten, illtten eruskuen ara guri, illtten eruskuen, emenguek emenguek geratusien an baia, an trenak eta trenak osuen etorrisien gero... kajakin, ona Bilbora, ori etorrisienak! An geratusienak jangoikuek jakin sertzuk sien! angue... da onekin nacionalakin, ba bakixu, abansetan suesenien beti esinsinke ondo jan. Uras be txarto, bakixu or Castilla erdiijen uripes, xiarre (?) in bier beruas, iguel cuarenta grados an serien euskitten, da antxe onbier, ostantzien ba, onekin nasionalakin, estosu aitzen ba, bueno nasionalakin edo Francon seretatik, abantzien ixenesik, ba jaten ondo, ondo egoten san, baia abantzietan jueten sanien es urik, es jatekorik, sardiñak eta atunek, eta latak artu ta blis-blas bota, ba estorbu eitteabien da, beruas da fusillas da, mosketoyas da manta da inguru kargeute da denporie berue... Txarto ibili giñien, baia ostantzien jaten... Gero posisiñuetan jueten giñienien da, ondo, baia bakixu frentien e. . . gure dan lekuen estau, jateko orduen iguel atakie etorten san, ari euntziñ einbijjakon, jatekue batolloire etorten sanien, eutziñ einbijjakon.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com